

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Dibertsitatearen aldeko mezua



Xabier Etxaniz Erle

Askotan esan izan dugu perla edo bitxi baten aurrean aurkitzen garela liburu bat komentatzerakoan; honetan ere gauza bera esaten ekin behar diogu. Izan ere, Mem Fox idazle australiarraren eta Helen Oxenbury ilustratzaile ingelesaren artean egindako obra hau bitxikeria bat da. Obra simple eta sakona, bere mezu ustez azalekoan ideia sakonak transmititzen dituen obra ederra.


Fox ez da hain ezaguna gure artean; Oxenbury, aldiz, nahiko ezaguna da nahiz eta euskaraz 2013an argitaratutako *Hartza ehizatze-ra goaz* izan bere lanik ezagunena. Hala ere, bata nahiz bestea erreferenteak dira nazioarteko haur literaturan, eta orain beren obraz gozatzeko parada dugu.

Hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi irakurle berriei edo oraindik irakurtzen ez dakitenei ere erakusteko moduko lan goxoa dugu. Liburuak egitura errepikakorra du: "Behin batean bazen haurtxo bat hemendik urrun sortu zena. Eta beste haurtxo bat hurrengo egunean bertan sortu zena. Eta haurtxo horiek biek, gertatu ohi den moduan, hamar hatz ttipi zituzten eskuetan eta hamar behatz ttipi oinetan..."; irudietan bi haur, bata beltzarana, bestea ile gorriduna, ikus ditzakegu; ezberdinak baina era berean antzekoak. Eta joko hori errepikatzen da beste hiru aldiz, arraza ezberdinetako haurrak azalduz, eta gehituz. Bi haur berri aurkezten diren bakoitzean lehengoak ere ageri direlako hau koadrila handia, ezberdinak baina aldi berean berdinak (denek dituzte hamar hatz txiki eta beste hamar behatz txiki).

Hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi

MEM FOX

Ilustrazioak:
Helen Oxenbury.
Itzulpena: Eva Linazasoro.
Pamiela-Kalandraka, 2018.
40 orrialde.
Haurrentzat



Irudiak, azalekoan ikus daiteken moduan, argiak dira, islatu nahi dutenak argi eta garbi erakusten dituztenak; eta kasu bakan batzuetan izan ezik, atzealdea zuria dutenak, ikuslearen arreta ez dadin desbideratu. Egia da eskimala edo basamortuko haurrak islatzean iglu bat edo jaima bat ere agertzen direla... agian ezberdintasun horretan haurren berdintasun ideia are gehiago indartzeko.

Horixe da liburu honen ideia nagusia. Liburu honen indarra aldiz, ideia horretan eta egileek lortu duten goxotasunean dago... haur protagonisten irribarreetan eta amaieran argi eta garbi erakusten zai-gun goxotasunean. ■

Mem Fox idazlea
(Australia, 1946).

